

2018ko MARTXOAREN 12ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua, 2018ko martxoaren 12an arratseko 7 orenetan Herriko Etxean bildu da, Bernadette JOUGLEUX Anderenaren lehendakaritza pean.

Hor dira : Bernadette JOUGLEUX And. Auzapeza, Christian Devèze Jn, Eliane Noblia And, Frédéric Bardin Jn, Pascale Lespade And, Didier Irastorza Jn, Henri Saint Jean Jn, Anne-Marie Pontacq And, axuantak, Vincent Goytino Jn, Christiane Hargain-Despéries And, Patrice Dor Jn, Yolande Huguenard And, Argitxu Hirigoyen And, Jean-Noël Magis Jn, Corinne Othatceguy And, Roger Barbier Jn, Pascal Bourguet Jn, Véronique Larronde And, Camille Jenvrin Jn, Argitxu Hiriart-Urruty And, Philippe Bacardatz Jn, Nathalie Aïçaguerre And, Amaia Beyrie And, herriko kontseilariak.

Eskas edo barkatuak: Eliane Aizpuru And, axuanta, Vincent Bru Jn, Jean-Jacques Lassus Jn, Maryannick Hirigoyen And, Peio Etchelecu Jn, Carmen Gonzalez And, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Eliane Aizpuru andereak Didier Irastorza Jaunari, Vincent Bru Jaunak Bernadette Jougleux Andereari, Jean-Jacques Lassus Jaunak Vincent Goytino Jaunari, Maryannick Hirigoyen Andereak Anne-Marie Pontacq Andereari, Carmen Gonzalez Andereak Christiane Hargain-Despéries Andereari

1 – Saioko idazkariaren izendatzea

Aho batez, hor zirenek Argitxu Hirigoien saioko idazkari gisa izendatu dute.

2 – Aitzineko bi saioetako bilkura agirien onartzea

Aitzineko saioan Auzapez Anderea eskas zenez, honek Devèze jaunari eman dio hitza, Hiriart-Urruty Andereak galdeginiko aldaketa bati buruzko zehaztasun bat eman dezan.

Hautuzko bi erretreta kutxa daudela azaldu ondoren, hots, Préfon eta Fonpel, Devèze Jaunak zehaztu du, alde batetik, Kanboko herria ez dela, aitzineko Herriko Kontseiluan errana izan zen bezala, Préfon kutxako kide, Fonpel kutxakoa baizik. Bestalde, bi kutxa hiretako kotizazio tasak berberak direla gehitu du, ordainsariaren baitako aitzin kontuaren eta kolektibitatearen partearen arteko banaketarekin gertatzen den bezala.

Azkenik, Kontseilu berean “hautetsien ordainsarien” apaltzeari buruz eman zuen azalpena berriz aipatu du. Aipatu apaltzea, Anne-Marie Pontacq Anderea hautuzko erretreta araubideko kide ez izatearekin esplikatzen da, baina baita Auzapez Anderea 2017ko uztailetik jasotzen dituen ordainsariak, muga efektu batengatik (mugara ez iristea), Urssaf kutxaren menpe ez izatearekin ere.

Hiriart-Urruty Andereak dio zehaztasunak ematea biziki ontsa dela eta, aurrekontua aipagaietan denez, hautetsien soldata agiriak, anonimoki, eskura ukaitea galdegin du.

Devèze Jaunak erantzun dio ez direla soldata agiriak ordainsari orriak baizik eta, hari dagokionez, neholako anonimotasunik gabe begiratu nahi lituzkeen orori jakinarazteko prest dela.

Neholako oharrik ez denez izan, aitzineko saioko bikura agiria aho batez onartu da.

3 – 2018ko aurrekontu orientabideak.

Devèze Jaunak, 3.500 biztanle baino gehiago dituzten herrietan, jatorrizko aurrekontuen bozkatze aitzineko bi hilabeteko tartean aurrekontu orientabideei buruzko eztabaida egon dadin behartzen duten 1992ko otsailaren 6ko legearen 11 eta 12 artikuluetako xedapenak oroitarazi ditu.

Lege hau, 2015eko NOTRe legearen bidez eta honen 2016 hastapeneko aplikatze dekretuaren bidez bere baliabideetan moldatua izan da.

Txosten honendako ez da forma inposaturik baina gardentasuna bermatzeko, NOTRe legeak Devèze Jaunak eginen duen aurkezpenean errespetatuko dituen xedapen batzuk aurreikusten ditu.

Orain arte bozkatik pasatzen ez zen eztabaida hau, gaur egun bozkatua den delibero berezi bidez idatzirik agertu behar da. Ez da eztabaidaren edukiaren inguruan bozkatuko, eztabaida egon denaren eta txostena aurkeztua izan denaren inguruan baizik. Formaren inguruko bozka da eta ez edukiaren ingurukoa.

Noski, aurrekontu orientabidearen eztabaidak, jitekoa den Herriko Kontseiluan aipagai izan den jatorrizko aurrekontuan bere aplikatzea ukanen du.

Eztabaida horrek sei atal ditu:

- Ekonomia perspektibak eta 2018 Finantzen Legea,
- Herriaren finantza egoera,
- 2018ko aurrekontuaren orientabideak,
- Aurrekontu gehigarriak,
- Orotariko gehigarriak,
- Egoera analitikoak

1 - Ekonomia perspektibak eta 2018 Finantzen Legea:

Devèze Jaunak adierazi du, ekonomia behaketen arabera egungo mundu mailako hazkuntza fasea 20158 urtean mantendu beharko litzatekeela. Aldeko testuinguru horretan, 2016 eta 2017an egiaztatu zen BPGaren hazkuntzaren suspertzeak 2018an ere aitzina eginen luke.

Frantzian, Barne Produktu Gordinaren (BPG) 2017ko hazkuntza tasa %2koa dela estimatzen da (iturria INSEE 18.02.28), hots, azken urteetako mailarik gorena.

Defizit publikoa BPGaren %2,9ra iritsiko omen da (behin betiko zifra 2018ko martxoan ezagutu behar genuke), azken hamar urteetako maila apalena, baina gobernuak finkaturiko %2,7ko helburutik goiti kokatuko da halere.

2018 Finantza Legeak (2018 FL) BPG %1,7z emendatuko dela uste du, Kontuen Gortearen baitakoa den Finantza Publikoetako Goi Batzordeak zuhurtzat eta zentzuzkotzat jotzen duen hipotesia da hori.

2018 FL eta 2018-2022 Finantza Publikoetako Programaziorako Legea (FPPL) legeek, defizit publikoa, xahutze publikoa eta derrigorrezko zerga biltzea gutitzeko gobernuaren borondatea agertzen dute, helburua 2022rako kontu publikoen oreka berreskuratzea delarik.

Herri mailako funtzionamendu xahutzeen emendatzea %1,2ra mugatzea proposatzen da (elkargo guzien arteko eta hirigune handietako batz bestekoa), edo %1,1era Kanbo bezalako kolektibitateendako. Hots, funtzionamendu kostuen hazkuntza biziki menperatua.

Devèze Jaunak zehaztu du, herriak %1,1eko emendatze mugatuaren hipotesia atxikitzea erabaki duela, eta horiek dira proposatzen diren funtzionamendu xahutzeen hazkuntzari buruzko taulak.

2015eko hauteskunde programan haien kargualdian zergarik ez emendatzera engaiatu ziren kolektibitate guzietan abantzu errealitatekin kanpo ziren neurriak hartu zituztela ohartarazi du, biziki zaila baita sei urtetan kolektibitateak zergarik ez duela emendatuko aurreikustea.

Hasteko, Kanbok ez du politika hori jarraitu, taseen emendatze progresiboan oinarritzen dena baizik, lehen urteetatik kanpo, 1995etik aitzina, inflazioaren heinean mantenduz, estratu bereko beste herriekiko beranta handia baitzen.

Aldeko perspektiba horiek hor izanik ere, 2018 Finantza Legeak hiru neurri aurreikusi ditu:

1. Estatuaren zuzkidurak 2017ko hein berean mantentzea, gure herriarendako biziki kaltegarri dena. Alabaina, Devèze Jaunak oroitarazi du, herriak, garai horretako Funtzionamendu Zuzkidura Orokorren apaltze mailakatuarengatik (- 780.000 €), indar handia egin behar izan duela 2014tik 2017ra.

2. bizitegi zergaren kentzea hiru urtetan. Devèze Jaunak zehaztu du hau konpentsatua izanen dela baina, aurrekontu oreka bermatzeko, horren ordez beste zergarik jinen dela.

Alta, ezin da jakin plantan emanen den zerga partikulariki tokiko elkargoen eta herrien kutxak elikatzeke izanen den. Ondorioz, erne egon beharko da, herria ez baita sekulan zimendu horien dinamikari esker konpentsatua izanen. Beraz, zimendu horien aldaketarako elementu hori ez bada zerga arintze neurrietan sartzen, kolektibitateak galtzeko anitz ukanen du.

3. inbestimendurako sustenguarien sendotzea, 2018an Tokiko Inbestimendurako Sustengu Zuzkiduraren (TISZ) eta Mendialdeko Lurraldeetako Ekipamendu Zuzkiduraren (MLEZ) berritzairekin.

2 – herriaren finantza egoera:

2013-2017ko funtzionamenduaren finantza gibelera begiratzeak, diru sartzeen (+%3,38) bilakaera xahutzeena (+%17,38) baino apalagoa dela agerian uzten du.

Hala ere, harturiko finantza engaiamenduak mugatuak izan dira eta funtzionamendu atalean aurrezki gordina eta autofinantzatzeko gaitasuna ukaitea ahalbidetu dute.

Abenduaren 31n, azken hiru urteetan gibelera bidean den zorra 2.351 K€-koa zen eta, herriak aurrezki guzira zorraren zerbitzura ezarri gero beharko liratekeen urte kopurua neurtzen duen zorraren ttipitze gaitasuna 2,21 urtekoa da.

Bardin jaunak galdegin du, zergatik, 2016 urtearekiko, zorraren ttipitzea emendatu den.

Devèze Jaunak, aurrezkiaren arabera zor den kapitalaren erreporta dela zehatu zuela oroitarazi dio.

Devèze Jaunak ratio nagusien gainbegirada egin du:

* 2017an, egiazko funtzionamendu xahutzeak biztanleko 811 €-koak ziren, 2016an 754 €-koak zirelarik, 64 departamendurako 907 €koak eta estratuaren estatu mailako batz besterako 1.033 €-koak (2017 urteko daturik ez da ezagutzen).

* 2017an, egiazko funtzionamendu diru sartzeak, biztanleko 957 €-koak ziren, 2016an 960 €-koak zirelarik, 64 departamendurako 1.037 €-koak eta estratuaren estatu mailako batz besterako 1.164 €-koa (2017 urteko daturik ez da ezagutzen)

* 2017an, egiazko langileendako xahutzeak biztanleko 358 €-koak ziren, 2016an 352 €-koak zirelarik, 64 departamendurako 466 €-koak eta estratuaren estatu mailako batz besterako 525 €-koa (2017 urteko daturik ez da ezagutzen).

* 2017an, egiazko biztanle bakoitzeko zorra 339 €-koa zen, 2016an 416 €-koa zelarik, 64 departamendurako 842 €-koa eta estratuaren estatu mailako batz besterako 842 €-koa (2017 urteko daturik ez da ezagutzen).

Zorraren zenbatekoa eta urteko kuota estratu demografiko berdineko hirietakoak baino apalagoak dira.

Ekipamendu xahutzei dagokionez, 2013-2017 epealdian eginiko inbestimenduen urteko batz besteko zenbatekoa 2.271 K€-koa da.

Inbestimendu egiazko diru sartzeak beherako bilakaera dute (496 K€). Ez da mailegu berririk hartu.

2016an, herriak CDC Errobitik 980.616 €-ko partaidetza funtsa eskuratu zuen, 2017an 369.126 €-koa izan zelarik eta 2018an 350.000 €koa izanen delarik, hastapenean aurreikusia zen 1.699.751 €-kora iristeko. Devèze Jaunak, 2016-2017-2018 hiru urteko epean banaturiko funtsa horien salbuesenezko eta behin behineko izaera azpimarratu du.

Maileguei dagokionez, eta zehazkiago zorraren ordaintzeari, apaltze esanguratsua egiaztatu da. 2012az geroztik harturiko lau maileguetarik, hamabi urtetan ordaintzekoak diren 2015eko bi mailegu baizik ez dira gelditzen, %1,25 eta 1,20ko tasakoak.

3 – orotariko gehigarriak:

Devèze Jaunak adierazi du, gehigarri horiek jadanik aipatuak izan diren puntu batzuk laburbiltzen dituztela: ratioak, finantza partaidetzak, fiskalitatea, tarifikazioa, esleituriko diru laguntzak, HELEPera atxikitzeak jasotako konpentsazioak, indarrean den -2017-2027 zorraren zenbatekoa.

Fiskalitateari buruzkoa den gehigarria aipatu du eta, abantzu urte guzietan bezala, proposatuko dena tasen emendatzea, urte bateko gibelapenarekin, inflazioarenera mugatzea izanen dela, 2017 urterako inflazioa %1,2koa izan zela oroitarazi du. Eztabaida bururatzean, herriak, etxeetako zergen tasen emendatzea %1,2ra mugatzea proposatuko du seguraski. Bizitegi zergaren tasa %11,03tik %11,16ra pasako litzateke, eraikitako lur jabetza zerga %10,44tik %10,57ra eta eraiki gabeko lur jabetza zerga %24,44tik %24,73ra.

Tasez bestalde, oinarriko aurreikuspenetan 2017 urteko egiazko oinarriak sartzen dira; alta, Kanboren kasuan, oinarri horiek erregulari dinamikokoak dira eta ondorioz diru sartze gehigarriak aurrez litzake.

4 – 2018ko aurrekontuaren orientabideak:

Devèze Jaunak adierazi du, herriak funtzionamendu egitura 65ean (100K€) orekatuko lukeela, diru sartzeetan, ekoizpen eta zerbitzuendako 7an (100K€) eta batez ere egituraren diru sartze handiena den inposa eta zergendako 34an (100K€). Xahutzeetan, izaera orokorreko kargak 2016koen hein bertsuan kokatuko lirateke, hots 20ean (100K€), kudeaketa gisa eginiko mantenu lanekin 100 K€ eta mantenu eta bide fresentzat 400 K€ baino gehiagoko birkokapenarekin.

Devèze Jaunak zehaztu du, SUEZeko ordezkariekin azken hiru urteetan aldaketa erratikoak agertzen dituen ur xahutzea aipatzeko elkartu berri dela. Lau arazo atzeman dira: igerilekuko kontagailuan, kirol zelaian, Parc St Joseph etxean eta Pedro Halty futbol zelaian. Zerbitzuek gure etxezainarekin eta zerbitzu teknikoetako ingeniariarekin bilkura antolatuta behar dute, arazo hori behin betiko konpon dezaten.

Langile karga mailan, ez da bilakaera esanguratsurik.

Inbestimenduari dagokionez, 2018 urterako aurreikusia den zenbatekoa 3.672 €-koa da zerga oro barne.

Finitzeko, Devèze Jaunak zehaztu du, aurrekontu orientabide horiek 2018 urterako abian den aurrekontu nagusia prestatzerakoan findu beharko direla.

Hiriart-Urruty Andereak, CMSeko lurpeko aparkalekuaren hesterako emanak diren 16.000 € zeri dagokion galdegin du. Zein da aparkaleku hori esteraren arrazoa?

Devèze Jaunak ihardetsi dio aparkaleku horretan ibiltzen den jendearekin arazoak direla. Hestea eta CMSa usu baliatzen duten administrazio desberdinen esku uztea erabaki da.

Auzapez Andereak gehitu du, hala dela eta, behin baino gehiagotan, ororen buru herriarendako kostu handia ekartzen duten andeatzeak izan direla: su-itzalgailu andeatzeak, su pizteak, hesteko mementoan gazte batzuk barnean egoten dira gero beste batzuei ireki ahal izateko.

Hiriart-Urruty Andereak uste du bi erabaki desberdin direla: lehena aparkalekua gauez hestearena, ulergarri zaiona, eta bestea CMSeko langileen esku uztearena.

Auzapez Andereak ihardetsi dio aparkaleku hori ez dela CMSeko langileen esku soilik utziko, administrazioko langileek ere baliatzen ahalko baitute.

Hiriart-Urruty Andereak paradoxazko egoera dela deritzo, Kanboarrei eta dendetan lan egiten dutenei kanpoko aparkalekuan aparka daitezten galdegina zaie eta herriko edo CMSeko langileak bulego aitzinean aparkatzen dira. Egunez, zergatik ez da aparkalekua denen esku uzten?

Devèze Jaunak erantzun dio arazoa hori dela preseski. Jendea ez da aparkaleku horretan haren autoa uztera ausartzen, jende ez gomendagarria ibiltzen baita, edo okupatua delako ere.

Hiriart-Urruty Anderearendako harrigarria da aparkalekua egunez okupatua izatea.

Auzapez Andereak hala dela erran dio.

Irastorza Jaunak gehitu du erabaki horrek herriko etxeko aparkalekuan lekuak libratzea ahalbidetuko duela, herriko etxeko langileek haien autoa lurpekoan utziko baitute. Gainaldeko aparkalekuak komertsant edo Kanboarrendako eskuragarri izanen dira.

Auzapez Andereak adierazi du inguruan bizi den jendeak aparkaleku pribatu gisa baliatzen duela. Hori zuzendu behar da.

Bacardatz Jaunak zehaztu du, gaur egun, aparkalekua gauez automatikoki hesten dela. Ez du ulertzen zergatik honen hestea aurrekontuan sartzen den.

Bardin Jaunak erantzun dio aparkalekua ez dela hetsia.

Bacardatz Jaunak egiaztatu du, ez dela beraz aparkalekua egoera segurrean uztearen arazoa baizik eta hetsi ahal izateko eta ateko kode baten ezartzeko konponketa eta antolaketa arazoa.

Auzapez Andereak zehaztu du, seguraski, aparkalekua baliatzaile ofizialei esleituko zaien karta bidez ibiliko dela. Langileek aparkatu beharreko auto kopuruaren inguruko ikerketa zehatzik ez da egina izan baina CMSeko, Turismo Bulegoko eta Herriko etxeke langileak hartzeko leku aski izanen dela uste du. Postako langileak ezingo dira hartan aparkatu.

Hiriart-Urruty Andereak aurrekontuan sartu diren frontoinarendako 30.000 €-ak zeri dagokioten galdegin du.

Devèze Jaunak erantzun dio pilota sozietateak, iragan sasoina finitzean, andeatua den frontoin nagusiari dagokion galdea luzatu zuela.

Irastorza Jaunak zehaztu du, aitzineko lanekin konpondu ez zen frontoin zaharraz ari garela. Pilota sasoina maiatzean hasten denez, lanak, 2018ko iraila edo urritik aitzina egingen dira.

Devèze jaunak gehitu du, lan horiek ezin direla herriko etxearen eskutik egin, pilotan ontsa egin ahal izateko emokadura berezia eman behar baita.

Bacardatz Jaunak argiztatze publikorako esleitu diren 150 K€-ei buruzko xehetasunak galdegin ditu. Auzoetako edo karrika nagusietako argiztatzeari dagokio?

Devèze Jaunak zehaztu du 130 K€-ko diru kopuru horren baitan 104 K€ St Joseph parkearen argiztatzerako direla.

Bacardatz Jaunak galdegin du, proiektu hori lan batzordearen esku izanen den edo zuzenki eskaintza deialdia luzatuko den.

Bardin Jaunak erantzun dio, proiektua aitzinatua dela eta seguraski lan batzordea bilduko dela proiektua aurkeztu ahal izateko.

Devèze jaunak ohartarazi du, 104 K€-ko zenbateko zehatza agertu den heinean, zerbitzuek zehatza den zirrimarra egin dutela ere.

Auzapez Andereak aurrekontu orientabideen eztabaida izan dela eta honi dagokion txostena aurkeztu dela egiaztatzeari buruzko bozka ematera deitu du.

Aho batez onartua.

4 – Veber margoen konpontzea: enpresaren izendatzea.

Auzapez Andereak jakinarazi du, 2012ko abenduaren 17ko delibero bidez, herriak Jean VEBERek 1904 eta 1905 artean Arnagako Rosemonde Egongelaxkarako egin eta Edmond ROSTANDEk manatu zituen “Maitagarri ipuinak” izeneko jatorrizko lekedaturiko zortzi margolan sorta eskuratzea erabaki zuela.

2013an, margolanak Frantziako erakustokietako Ikerketa eta Konponketa Zentrora – Versailleseko C2RMFera eraman ziren aztertu eta ikertuak izateko, haien konponketa aurreikusteko gisan.

2016an, herriak, Kultura Gaietarako Eskualde Zuzendaritza – DRAC Akitania Berriaren adostasunarekin, margolanen konponketa eta hauek haien jatorrizko lekuan ezartzea programatu zuen.

Operazio horrek (aitzinetikako azterketa baten ondotik zergarik gabeko 127.000 €-ko kostu osoa ukanen zuela estimatu zena) 101.6060 €-ra iristen den diru laguntzak eskuratu ditu (DRAC Akitania berria, Akitania Eskualde Berria, Pirinio Atlantikoetako Departamendua).

Aitzinetikako margolanen azterketa 2012koa denez, Herriak HULOT Multzoaren esku utzi du azterketa sakonagoa gauzatzeko egitekoa, egin beharreko konponketa lanendako arte obra konpontzaileen artean kontsulta bat abian eman dadin (azterketa 2017ko urritik abendura egin zen, zergarik gabeko 15.000 €-ko zenbatekoarendako).

Beharrezko esku hartze garrantzizkoenak agertzen ditu, bereziki gehien berriz tindatu beharko diren lau margolanendako. Operazio horiek, zergarik gabeko 4.600 €-tan estimaturiko diru mailako eragina dute, eta horrek zergarik gabeko 146.000 €-ra eramaten luke operazioa (konponketa zerbitzua + ikerketa).

2018ko urtarrilaren 23an, (kultura izaeradun) zerbitzu emaile merkatu bidezko kontsulta abian eman zen, azterketa horren ondorioen arabera eta C2RMFek gainbegiraturik, kontserbatze eta konpontze (margolaritzako euskarri eta estaldura) eta berriz montatze esku hartzerako, panelak jatorrizko zurezko euskarrian ezartzeko (operazio horren obralaritzarako asistentzia) eta margolanak lekuan berriz instalatzeko. Gutunak, berantetik 2018ko otsailaren 22ko 12:00etarako helarazi behar ziren.

MAPA batzordea 2018ko otsailaren 22an 14:00etan bildu zen gutun horien irekitzeko; bi bide ez materialetik eskuratu ziren eta bat posta bidez:

- Chantal Bureau Andereak ordezkaturiko elkartasunezko baterako multzoa 192.693 €-ko zenbatekoarendako zerga oro barne.
- Jean-François Hulot Jaunak ordezkaturiko elkartasunezko baterako multzoa 160.002 €-ko zenbatekoarendako zerga oro barne.
- Carole Clairon-Labarthe Andereak ordezkaturiko elkartasunezko multzoa elkartea 182.031,84 €-ko zenbatekoarendako zerga oro barne.

Amaga Erakustokiko Kontserbatzaile den LABAT andereak aurkeztu duen C2RMFak eginiko eskaintzen analisia entzun ondoren, 2018ko martxoaren 1ean bildu zen MAPA batzordeak Jean-François HULOT Jaunak ordezkatzeko duen HULOT multzoa atxikitzea erabaki du,

zergarik gabeko 133.335 €-tan (oinarrizko eskaintza eta balizko zerbitzu gehigarriak barne), kontsultan aipaturiko irizpideen arabera ekonomikoki abantailagarriena baita.

Aiçaguerre Andereak galdegin du lekuan berriz ezartzearen baitan garraioa kontuan hartu den

Auzapez Andereak baiezkoarekin erantzun dio

Aiçaguerre Andereak galdegin du zer gertatuko den galdeginiko laguntza guziak ez badira esleituak.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak zehaztu du, DRACak %40ko diru laguntza esleitzen duela eta Eskualdeak hastapeneko zenbatekoaren araberrako %15aren heineko diru laguntza onartu duela, bi edo hiru mila euroz apalagoa dena.

Aiçaguerre Andereak dio, ondorioz, %45 herriaren gain legokeela.

Auzapez Andereak gehitu du Departamenduaren parte hartzea egiaztatu beharko dela.

Aiçaguerre Andereak dio margolanen eroste kostua jadanik handia zela (80.000 €)

Bacardatz Jauna harrিতua agertu da azterketa egiteko hautatu zen bulegoak bulego guzien arteko berdintasunaren araberrakin egiteko azterketa bati erantzuteko parada duelako. Funtsezko kontua da, azterketa bulego bat lanen egiteko hautagai ere izan daitekea?

Bardin Jaunak erantzun dio multzo horrek ez duela azterketa osoa egin, azterketa gehigarria soilik egin duela.

Bacardatz Jaunaren iduriko, multzo horrek, aitzinetik azterketa egin duenez, beste multzoekiko abantaila ttipi bat duela.

Bardin Jaunak zehaztu du, MAPA batzordea bildu zelarik ontsa azaldu zen bezala, hautagai ziren hiru zerbitzu emaleak margolanak ikustera joan zirela.

Bacardatz Jaunak zaharberritzailleek haietariko batek aztertu zuen eskaintza bati erantzun diotela baizik ez du egiaztatu.

Bardin Jaunak berriz ere erantzun dio Hulot multzoak 15.000 €-tan zifraturiko azterketa gehigarria baizik ez duela egin.

Bacardatz Jaunak gehitu du, azterketa gehigarri hori proiektuaren osotasunean oinarritu dela. Zaharberritzailleen arteko berdintasunaren inguruko hausnarketa baizik ez du egin.

Irastorza Jaunak uste du, baina Labar Andereari konfirmatzea galdeginen dio, gizon horrek baizik ez dituela Frantziako Erakustokiendako margolanen azterketak egiten.

Auzapez Andereak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aïçaguerre Andereak, Amaia Beyrie Andereak.

5 – Turismo Bulegoa: diru laguntza aitzinatzea

Auzapez Andereak oroitarazi du, Herriko Kontseilua, 2018ko jatorrizko aurrekontua bozkatu artean, Turismo Bulegoaren aldeko diru laguntza aitzinatzearen inguruko iritzia ematera gonbidatua dela, 97.500 €-ko zenbatekoarendako, hots, galdeginiko diru laguntzaren (195.000 €) %50a.

Auzapez Andereak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

6 – Saneamenduaren aurrekontu gehigarria.

a) Aurrekontuaren hestea

Devèze Jaunak oroitarazi du, afera aurrekontu haun behin betiko hestea dela. Administrazio kontua eta saneamenduko 2017ko kudeaketa kontua aitzineko Herriko Kontseiluan onartu ziren eta ondoko saldo eta emaitzak agertu dituzte:

Ustiatze saila: 2017ko abenduaren 31n metaturiko emaitza: 217.195,28 €

Inbestimendu saila: 2017ko abenduaren 31n metaturiko emaitza: 1.360.370,06 €

Auzapez Andereak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

b) Egiteko gelditzen direnen eskualdatzea

Devèze Jaunak oroitarazi du, Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorreko L1321-1 eta L1321-2 artikuluek agintzen duten arauaren arabera, eskumenen eskualdaketak eskumen beraren baliatzerako beharrezkoak diren ondasunen eta kontratuen eskura uztea dakarrela. Egiteko gelditzen direnak ere eskualdatuko dira.

Devèze Jaunak, 2017ko abenduaren 31n saneamendu aurrekontu gehigarrian sartu ziren egiteko gelditzen direnak 1.315.677,11 €-ko xahutzera iristen zirela zehaztu du eta egiteko gelditzen direnak Euskal Hirigune Elkargora eskualdatzea proposatu du.

Auzapez Andereak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

c) Heste soberakinen eskualdatzea

Devèze Jaunak oroitarazi du, saneamendu aurrekontu gehigarriak finantza orekaren printzipioaren menpe direla, Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorreko L2224-1 eta L2224-2 artikuluek xedatzen duten bezala.

Devèze jaunak zehaztu du, gibelaturiko funtzionamenduaren emaitza 217.195,28 €-koa dela eta gauzatzearen saldoa, hau da, metaturiko soberakinena, 1.3603370,06 eurora iristen dela.

Funtzionamendu soberakinaren eskualdatzea mandatu bidez egingen da 678 kontuan sarturiko 217.195,28 €-ko zenbatekoarendako, eta gauzatze saldo positiboa 1068 kontuan sarturiko 1.3603370,06 €-ko zenbatekoarendako.

Devèze Jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

7 – Eskola garraioa: Euskal Herria-Aturri Mugikortasun Sindikatuarekin hitzarmena.

Auzapez Andereak oroitarazi du, 2015eko maiatzaren 15eko delibero bidez, Lehen Mailako Autoritate Antolatzaile (AO1) den Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Kanboko Herriari eskola garraioa kudeatzeko eskumena bere gain hartzeko ahalmena eman ziola “Bigarren Mailako Autoritate Antolatzaile” (AO2) gisa.

Hartara, denen artean adosturik eta gutun trukatzeko bidez, bi aldiz berriro daitekeen urte baterako hitzarmena izenpetu da. Ahalmen emate hori 2015eko uztailaren 20ko eta 2016ko uztailaren 4ko Herriko Kontseiluetan hartu delibero bidez onartu zen.

2015eko agorrilaren 7ko “NOTRe” Errepublikaren Lurralde Antolaketa Berriari buruzko legearen aplikatzearekin, departamenduetako garraio eskumena Eskualdeen esku da eta, eskola garraioarendako, 2017ko irailaren 1az geroztik hala da.

Gainera, 2017ko maiatzean, Akitania Eskualde Berriak eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, herriarengana jo zuten AO2 gisa 2017-2018 ikasturterako eskola garraio eskumena 2016-2017 ikasturteko baldintza beretan bere gain hartzen segi zezan galdeginez. Erabakia 2017ko ekainaren 19ko Herriko Kontseiluan onartu zen.

Eskola garraioa izanez, Garraioen Kodeko L.3111-9 artikuluko xedapen berezien arabera, Eskualdeak bere eskumen osoa edo parte bat departamenduaren zein herrien, HELEParen, sindikatu mistoen, ikastetxeen edo buraso elkarte eta familia elkarten esku utz dezake.

Iragan urtarrilaren 25eko gutun elektronikoko bidez, 1. Mailako Mugikortasun Iraunkorrerako Autoritate Antolatzailea den Euskal Herria-Aturri Mugikortasun Sindikatuak – SMPBA, 2018ko iraileko sartzetik aitzina eskola garraio zerbitzua antolatzeko ardura ukanen zuela jakinarazi zitzaion herriari.

E-mail trukaketa baten ondotik, herriak, AO2 eskumena haren gain hartzen segitzeko xedea berriz agertu zuen, ordura arteko baldintza beretan, hots:

1. 2001az geroztik plantan den zuzeneko kudeaketaren baitan (herriko autobusa),

2. Zerbitzu-emate merkatu publiko baten baitan izendaturiko garraiolari titular baten bidez (Autocars MIRAL).

Herriko Kontseilua gonbidatua da:

- AO2 eskumena haren gain hartzeak berean segi dezan onartzera, jitekoak diren bi eskola epealdiendako: 2018-2019 eta 2019-2020
- Auzapez Andereari Euskal Herria-Aturri Mugikortasun Sindikatuarekin hitzarmena izenpetzeko baimena ematera
- Auzapez Andereari AO2 gisa eskura utziriko eskola garraio zerbitzua bermatzeko baimena ematera, gaur egungo bi moldetan:
 - o AO2aren bidez, zuzeneko kudeaketaren baitan,
 - o Eskola garraiorako zerbitzu-emate merkatu baten izenpetze bidez.

Hiriart-Urruty Andereak, herriak antolatzen duen eskola garraioak lehen mailako eta kolegioko ikasleak hunkitzen dituen galdegin du.

Noblia Andereak baiezkoarekin erantzun dio. Herriko autobusa herriko eremu urrunenetara doa, Celhaya, Gailurretako bidea eta zazpi haritzen bidea.

Hiriart-Urruty Andereak izen ematea herriko etxean egin behar den galdegin du.

Noblia Andereak baiezkoarekin erantzun dio.

Hiriart-Urruty Andereak gehitu du, kolegioendako izen ematea Departamenduan egiten dela eta, hiri barneko ibilbideendako, izen emateak herriak kudeatu dituela beti. Herriak, zerbitzu hori mantentzearen interesa zein den galdegin du.

Lespade Andereak uste du, kolektibitateak herriko autobusa erosi badu, eskola garraioa garraio enpresek eskaintzen dutena baino merkeago izan dadin dela. Garraioa Departamenduak edo beste egitura batek bermatzen badu, ordaindu beharko da.

Hiriart-Urruty Andereak ohartarazi du, ondorioz, Kanboko ikasleek autobusa hartuz gero ez dutela garraiorik ordaindu beharrik.

Noblia Andereak ihardetsi dio, Kanbon, ama eskolako eta lehen mailako haurrek ez dutela garraiorik sekulan ordaindu.

Hiriart-Urruty Andereak adierazi du, Kanbon, autobusa arribatzen ez den eremuak badirela lehen mailakoendako ere, Paskaleku bezalako urruneko sektoreak kasu. Populakuntzaren araberako auzoen eta ibilbideen berrikuste batek on egin lezake.

Auzapez Andereak erantzun dio, hunkituak diren burasoak herriko etxera joan behar direla.

Auzapez Andereak bozkatzera deitu du.

Lespade Andereak ez duenez parte hartu, gehiengoak onartua.

8 – langileak: enplegu sortzea.

Lanpostuen eta bermaturiko egitekoen bilakaera kontuan hartzeko, Auzapez Andereak ondoko enpleguak sortzea proposatu dio Herriko Kontseiluari:

- 2018ko uztailaren 1etik aitzina, 2. mailako animazio laguntzaile nagusi enplegu iraunkorra, denbora osoz,
- 2018ko uztailaren 1etik aitzina, ondarearen kontserbatzerako eskualde arduradun enplegu iraunkorra, denbora osoz,
- 2018ko urriaren 1etik aitzina, 1. mailako teknika laguntzaile nagusi enplegu iraunkorra, denbora osoz,
- 2018ko urriaren 1etik aitzina, 1. mailako ondarearen laguntzaile nagusi enplegu iraunkorra, denbora osoz.

Auzapez Andereak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua

9 – Orotarikoak.

- Auzapez Andereak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die, martxoaren 19an, astelehenez, “Aljeriako su etenaren” 56. zeremonia iraganen dela hilen oroitarran.
- Auzapez Andereak jakinarazi du, Herri Soinuk, ezker paretan, musika eta dantza herrikoien inguruko festibala antolatuko duela martxoaren 16tik 18rako asteburuan.
- Devèze Jaunak adierazi du, bizitzaile berrien usaiatzko harrera 2018ko martxoaren 17an, 10:30an, larunbatez, iraganen dela herriko etxean.
- Noblia Andereak ohartarazi du, herriak Bordeleko akademiaren gutun bat eskuratu duela, 2017 ikasturteko sartzean lehen mailarako esleitu zen postua 2018ko iraileko sartzean mantenduko dela erranez.
- Zerbitzuetako zuzendari nagusia Veber margolanen konpontzerako finantzatzearen inguruan pausatua izan zen galdera berriz aipatu du. Dosier horretan, margolanen erostea eta hauen konpontzea desberdindu behar dira.
Erosteari dagokionez, Estatuak %35ean parte hartu zuen, Eskualdeak %30ean eta Departamenduak ez zuen deus ere eman. Diru laguntza 80.000 €-ren gaineko %65ekoa izan zen.
Konpontze faseari dagokionez, zinezko zenbatekoa hastapen batean DRACari galdegitean aurreikusi zen zenbatekoa baino pixka bat handiagoa dela kontuan hartuz, Estatuaren parte hartzea %36.50ekoa izanen da, Eskualdearena %15ekoa eta Departamenduaren %25ekoa.
- Bacardatz Jaunak galdegin du, aitzineko Herriko Kontseiluan Kanbon ostatu hartzen duten kuristen haurrendako AGAZaren tarifakazioari buruz pausatu zuen galderari arraposturik ukan dezakeen.

Noblia Andereak erantzun dio arrapostua ondoko Kontseiluan emanen diola.

- Aïçaguerre Andereak Edmond Rorstanden oroitzarreak buruzko liburuxka eskuratu du eta urte osorako programaturiko ekitaldi guzi horiendako aurrekontua zein den galdegin du.

Auzapez Andereak ihardetsi dio zenbakiak ez dituela eskura eta erantzun bat ukanen duela.

Aïçaguerre Andereak adierazi du, haren taldearendako liburuxka elebidunez argitaratu ez izana penagarri dela eta Pontacq Andereak iragarri zuenaren kontra, hots, euskarazko ale bat, gehiengoko taldeak ez duela hala egin, domaia da.

Auzapez Andereak Herriko Kontseiluko saioa finitutzat eman du 20:45ean